

Juan Cruz Lakasta

KAZETARIA

Life of Sebastian

L

ife of Brian pelikularen bertsio gaurkotua: ospitalea. Zainketa intentsiboetarako unitatea. Gaixo terminalak ilaran. Eta medikua galdezka: “Zuri zer dagokizu, morfina ala gurutziltzatzea?”. Gaixo batzuek “morfina” eta bestetzuek “gurutziltzatzea” erantzuten duten bitartean, erietxeko bozgorailuetatik Tuterako apezpiku eta Iruñeko artzapezpiku ohi Fernando Sebastian kantuan eta txistuka entzun daiteke: “*Always look on the bright side of life, fíjate fíjate fíjate fíjate...*”.

Artikulu hasiera surrealista samarra atera zait, baina errua ez da nirea baizik eta adierazpen are surrealista goak eginez halakoak irudikarazi dizkidan artzapezpiku ohiarenak: “Kristok heriotza duina eduki zuen, zainketa aringarririk gabea”. Sebastianek Aste Santuan esan zuen hori. Erreferentzia zinematografikoekin segituz, agian egunotan telebistan pantailaratu dituzten *The Robe* (gaztelaraz, *La túnica sagrada*), *King of Kings* (*Rey de reyes*) eta *Jesus of Nazareth* (*Jesus de Nazaret*) jarraian ikusteak eragindako euforiaren eraginpean mintzatu zen. Edonola ere, pasatu zen pasatu zenez: Kristo ez zen hil, modu basatian hil egin zuten.

Torturapean hiltzea heriotza duin eredugarritzat aurkeztea katolikoei ikaragarria da. Izan ere, Sebastianek badaki bere hitzek gaixo terminal fededun askoren erabakia bal-



MIKEL SAIZ

dintza dezaketela. Berak bultzaturik ehunka, milaka lagunek morfina bazterrean utzirik gurutziltzatzea hauta dezaketela. Zainketa aringarriak zokoraturik min ikaragarriak paira ditzaketela haien bizitzaren azken txanpan.

Horren guztiaren jakitun izanagatik ere, artzapezpiku ohiak esan zuena esan zuen. Horren giblean fedearen argiaren kontzepzio itsua dago, erlijioaren ikuspegi dogmatikoa. Erljio katolikoko dogmak dio bizitza dohain sakratua dela, Jaungoikoak eta soilik Jaungoikoak eman eta ken dezakeena.

Dogma horren irakurketa literala egiten dute, eta horretan oinarriturik, jo eta su aritzen dira gizarte osoari, herritar katoliko zein ez katolikoei, bizitzaren haien ikuspegi hori inposatu nahian.

Ikuspegi dogmatiko horrek antisorgailuen, abortuaren, zainketa aringarrien, eutanasiaren inguruko debatea baldintzatzen du. Bistan da gai korapilatsuak direla, poliedrikoak, arantzadunak. Baina gutxitan izaten dira haien inguruko eztabaida eraikitzaileak; izan ere, gehien gehienetan ozenen entzuten diren argudioak helburu bakartzat eraistea duten dogmatikoenak dira. Dogmatiko deitu ditut. Zuzenagoa zatekeen integrista deitzea. Harrigarriki, XXI. mendean integristek itzal handia dute gure gizartean. Handia eta iluna, oso iluna. ■



Torturapean hiltzea heriotza duin

eredugarritzat aurkeztea katolikoei

ikaragarria da. Sebastianek badaki

bere hitzek gaixo terminal

fededun askoren erabakia

baldintza dezaketela



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza

Joanak



Ditugu jada, bozketen emaitzen ajeak. Azken bi mahaien zenbatekoak jakin arte, irabazleak ginen. Zenbaiten

urduritasuna, ezinegona, ezkuta ezinezko frustazioa bilakatu zen. Hogeita zortzi bozka eskas hondarretarako. Gure arteko baikorrenek ere irudikatuko ez luketen emaitza. Asteazken zehar bilkura publiko bi izan genituen beste ekintza propagandistikoaren artean. Arrakastatsuenak, PSko hainbat harridurararako. Ez gintuzten ezagutzen eta beren hitzetan aitortza, harritu ditugu, ez gara jada uste zuten bezain estuak eta gurekoiak. Hain hurbil ikusi garaipena eskutik ihesi joan ondorengo festa ederra izan

zen. Baina barealdiz, UMPkoen zerrendako partaide PNBko ezagun berriaren hitz hartzea datorkit gogora: “horiek independentistak dituzue” bota zuen publikoki entzulegoa izutu nahian. Gaztea dugu eta politikara heldu berria, UMPkoen lan zikina beregain hartu duena, herriko botere pikoa oinez baino helikopteroz igo nahi duena. Ezantzak duen prezioarekin eta igogailuaren kontsumoarekin, bide laburra du. Aurrerantzean, UMPkoek bera dute behar zuten abertzalea, zerrendako ikurrina, bihotz- bihotzean eramanen duena ezkatututa ingurukoak kutsatu ez daitezten: *Abelzalea*. Berak esana, gu independentistak. Sei urteren buruan irabaziko dugunak. ■